IDIAZABALGO XL. HERRI KROSA

ARAUDIA

1. **ANTOLAKETA**

   IDIAZABAL KIROL ELKARTEA – HERRI KROSA sailak, Idiazabalgo Udalaren babesarekin, 2020ko urtarrilaren 26an egingo den Idiazabalgo XL. Herri Krosa antolatuko du.

2. **PARTE HARTZEA**

   Lasterketan , 14urtetik aurrera , edonork parte har dezake, aurrez izenematea behar bezala egin eta araudia onartzen badu.

3. **IZENEMATEA**

   Aurrez, www.rockthesport.com web orriaren bitartez, lasterketa aurreko OSTIRALEAN gaueko 21:00ak arte egin ahal izango da

   Dortsalak jasotzea, lasterketa egunean herriko plazan eta 11:30ak baino lehen egingo da.

4. **LASTERKETA HASIERA**

   12:00tan hasiko da lasterketa, kadete eta helduentzat.

5. **KATEGORIAK**

   - Neska Kadeteak (2004-2005 urteetan jaioak)
   - Mutil Kadeteak (2004-2005 urteetan jaioak)
   - Emakumezko Helduak
   - Gizonezko Helduak
   - **Emakumezko Beteranoak (45 urte beteta lasterketa egunean)**
   - **Gizonezko Beterakoak (45 urte beteta lasterketa egunean)**

6. **DENBOREN KONTROLA**

   Lasterketako denboren kontrola KRONOAKeko teknikoen esku egongo da. Emaitzak www.rockthesport.com web orrian argitaratuko dira.

7. **SAILKAPENETATIK KANPO**

   - Kontroleko puntu guztietako erregistroak ez dituztenak.
   - Etiketa elektronikoa eta dortsalik gabe korritzen dutenak.
   - Berari ez dagokion dortsala edo etiketarekin , parte hartzen dutenak.

8. ERANTZUKIZUNAK

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko gerta litezkeen istripuen erantzukizunik.

9. MEDIKU LAGUNTZA

GURUTZE GORRIAK bere laguntza eta zerbitzuak eskeiniko ditu.

10. SARIAK

- Sari banaketa 13:15tan hasiko da.
- Sariak mailaka:
  - **KADETEAK**
    3 lehenengo neskak
    3 lehenengo mutilak
  - **LASTERKETAKO LEHENAK**
    3 emakumezkoak
    3 gizonezkoak
  - **BETERANOAK**
    3 lehenengo emakumezkoak
    3 lehenengo gizonezkoak
  - **HERRITARRAK**
  - Idiazabalen erroldatutakoak hartuko dira herritartzat.
    Lehenengo neska kadetea
    Lehenengo mutil kadetea
    3 lehenengo emakumezko helduak
    3 lehenengo gizonezko helduak
    Lehenengo emakumezko beteranoa
    Lehenengo gizonezko beteranoa

11. ZOZKETA

Lasterketa amaitzen duten guztiek opari berezi bat jasoko dute lasterketaren 40. Urtea dela eta.

12. LASTERKETA EZ OSPATZEA

Eguraldi oso-oso txarra edo ustegabeko arrazoi larriengatik, aurrikusitako egunean, lasterketa burutuko ez balitz, 40 eguneko epe barruan beste egun bat izendatuko da. Gainera, hala nahi duenari, ordaindutako dirua itzuli egingo zaio. Horretarako antolakuntzari posta elektronikoz jakinarazi beharko dio.

13. DUTXAK

Hala nahi duenarentzat, dutxa zerbitzua Arizkorreta futbol zelaian eta Zelako kiroldegian izango da.

14. ERREKORRA

Aurreko urteetako denbora hobetzea lortzen bada emakumezko edo gizonezkoetan sari berezi bat izango luke irabazleak. Horretarako erreferentzia “benetako denbora” izango da. Emakumezkoetan orain arteko denbora onena 38:36da, Izaro Rubio Lasarena , 2018koa eta gizonezkoetan berriz 31:38, Javier Nagore Arizurena, 2016koa.